

ONTZISKA TA EKAITZA

Oi ontziska gaixo, i bai errukarri!
Zer dagik itxaso suminduan larri?

Nora ua, intxaur-oskol urez arraunketan?
Ugarte illezkorraz ari amesetan?

Ala, adu itxastarrak urruti bilduma
ta bertara i be dei, zorakor urruma?

Garden-zale, iduriz, az, ene ontzi; baiña ur
dabilkik ekaitza, arerio makur.

Ekaitz-erraiak dir oiñaztarriz izor,
burrumba ostotsak odei-ganez sarkor.

Irakin diraki ur-zela; gordiñak;
zurbil jarri dira lengo margo urdiñak.

I barriz aurrera, ur-galdorrek magal,
uiñen laztan-zale, estalkiak zabal.

Azatz gazi zear ekaitzaren mende...!
Erruki damostak, jtxasontzi txume.

Zabuka, zinkuriz, ondatu zorian,
izu-larri abil uiñen bizkarrian.

Gain dok ur-mendia, gaiztozko zirimol;
ik barriz intzira; baiña garaille, isol.

Or yatork nasian itxaski zakarra;
pot-egiñik, ene!, iku dok ondarra.

An... laster gaiñik gain, barriz igerian,
apar zuri barna itxas osiñian.

Uin-sabelak yoek suleza indarra;
ik baiña gaintzeko burnizko bularra.

Oi, ontziska gaixo! Jo lenbailen kaira;
urageak azkar, egik ondartzara.

Eunak aize mende, kai bidean ekin;
ekaitza jgesteko alegiñak egin.

Ez yak, noski, eder ondartzza barruti,
erason orregaz osoan berezi?

Ator, maite: aier ao aspaldiz kaiak;
itzat naro yozak ur oztin garbiak.

GORAGO!

Ibarra gurutzetuz
iruntz-iztil meetan...
Bean ezti garoa,
goi-adarrak lotan.

Lau zabala amets neban
orril astean nik;
lo, deusez eta illik ez,
baiña bai ederrik.

Zure biotza bere
—jbai alaia antzo—
dantzari nik uste goiz
jagikeran atzo.

Otz, baiña, idoro neban,
ta ez dot nai ibarrik.
Gorantzako zidorrez
nabilke gogotik.